

# Baratze bat

---

## Aurkibidea

<i>Sarrera</i> .....	1
<i>Hasten hasteko</i> .....	2
<i>Oinarriak</i> .....	3
<i>Ilargiaren eragina</i> .....	5
<i>Ilargiaren izenak</i> .....	5
<i>Liburu baten aurkezpena, Donostian</i> .....	6
<i>Hiztegi- eta gramatika- kontuak</i> .....	7
<i>Ebazpenak</i> .....	7
<i>Hasten hasteko</i> .....	7
<i>Oinarriak: lurra, ura eta argia</i> .....	7
<i>Ilargiaren eragina</i> .....	7
<i>Ilargiaren izenak</i> .....	7
<i>Liburu baten aurkezpena, Donostian</i> .....	7
<i>Hiztegi- eta gramatika- kontuak</i> .....	7

## Sarrera

**Ikasgai hau *Bizi Baratzea* liburuan oinarritzen da neurri handi batean.**



Euskal Herriko eta batez ere euskal isurialde atlantikoko ezaugarri berezietako baratze zaintza aintzat hartzen duen esku-liburua da *Bizi Baratzea*. Modu atsegin eta ulerterrazean, baratzearen abenturan murgiltzeko grina daukatenentzat gida ezin hobea eskaintzen du lan honek, baita dagoeneko lehen urratsak eginda dituztenentzat ere.

Liburua atal labur askotan bananduta dago. Argibide orokorrak ematen dira hasierako zatian; ondoren, kapitulu bana eskaintzen zaio 30etik gora barazkiri. Bakoitza lantzeko lur mota eta sasoi egokiena, ur eta argi beharra, izurriteetatik babesteko moduak, aldamenean eduki behar dituen lagunak... Baratzean aritzeko behar den oinarritzko jakintza, 200 orrialde inguruan bildua.

## Hasten hasteko

→ **Aukeratu erantzun zuzena.**

## HASTEN HASTEKO

**Jakoba Errekondo. Bizi Baratzea (15. or.)**

**Baratzeak, lagunak bezala, denbora behar du.** Ez gehiegi, baina etengabe. Hutsegiteetatik ikasiz, eskarmentuz jantzi ahala, baratzea aberastu egingo da: barazki-aukera hazi egingo da, uztarekin batera. Ez izan presarik. Ito gabe, astiro, baina beti <sup>(1)</sup> \_\_\_\_\_ eta, batez ere, urrundu lehiatik. Besteenetatik ikasi gauza onak; uxatu barazki handiena, azkarrena, lehena izan behar <sup>(2)</sup> \_\_\_\_\_. Kalitatea, ez kantitatea. Barazki eta fruitu itsusiak jan, ederrenak dira, eta, batez ere, onenak dira. Gure amona Joxepa zenak ederki <sup>(3)</sup> \_\_\_\_\_ esaten zigun: txoriak mokoka zulatu duen sagarra aukeratu jateko, huraxe da onena. Ez ahaztu sekula: baratzea plazeren plaza da. Bestela ere bada, bai, nahikoa estres eta lehia.

Baratzean, edertasuna eta erabilgarritasuna ezkontzen dira, eta onura ugariren azoka da: osasuna, ariketa, kultura, estetika, artea, kalitatea, jakintza, bioaniztasuna, paisaia... Baratzea izan da euskaldunon jardina. Bertan elkarrekin landu izan dira barazkiak, lorategi estetikoak, sendabelarrak, hazitegiak, lokarrietarako gaiak, zuhaitz- eta arbola- mintegiak, errituetarako landareak, belar- eta inaurkin- metak, fruitu-arbolak, aberentzako bazkak... Aspaldi ekin zioten euskal paisajistek hiriguneetako lorategietan barazkiak jartzeari. Hori da gure Paisaia Kulturala. Estetikaren eta emankortasunaren arteko harmonia hori <sup>(4)</sup> \_\_\_\_\_ datza baratzezainaren artea. Horretarako, ahal dugun sail onenean jarri beharko da baratzea. Familiaren eta etxearen gune garrantzitsuena behar <sup>(5)</sup> \_\_\_\_\_.

**Lur sailik** <sup>(6)</sup> \_\_\_\_\_ hor daude leiho, balkoi, terraza, patio, teilatu... Loreontzi, poto, lata-ontzi, bidoi, bainuontzia... Edozein ontzi da ona barazkiak egiteko. Han eta hemen, gero eta gehiago ikusten dira; jendearen irudimena mugagabea da eta harritzeko moduko baratze hiritarrak sortzen dira; asko, gutxien uste den birziklatutako materialekin

eraikitako asmamen harrigarriak. Perrexila eta halako belarretatik hasi eta fruitu arbola txikietaraino, denetatik ikusten da etxeen azalean.

Besterik ezean lurrak okupatu eta baratzea egin; *Jean Jacques Rousseau*k esan zuen: "Lurra ez da inorena eta bere fruituak denonak".



(... )

**Jarri mota guztietako barazkiak.** Ale gutxixeago <sup>(7)</sup> \_\_\_\_\_ badira ere, tamaina, forma eta sasoi desberdinetako aukera zabalago batekin, baratzea biziago, oparoago, osasuntsuago eta, batez ere, ederrago bat izango da.

**Baratze-lanetan** estu eta larri ibiltzea <sup>(8)</sup> \_\_\_\_\_ da. Baratzea gozatzeko da. Ongi pasatzeko. Primeran pasatzeko. Eta zoriontsuago bizitzeko.

<b>1-</b> A. ari B. lan C. poliki	<b>5-</b> A. du B. da C. dio
<b>2-</b> A. hori B. horrek C. horri	<b>6-</b> A. ez ezik B. ezean C. barik
<b>3-</b> A. askoa B. oso C. asko	<b>7-</b> A. izan B. izango C. izaten

<b>4-</b>  A. lortzen B. lortzean C. lortzea	<b>8-</b>  A. azkena B. hurrena C. ondorioa
--	---

## Oinarriak

→ **Irakurri testua eta erantzun ulermen galderei.**

## OINARRIAK: LURRA, URA ETA ARGIA

### BARATZEA NON EGIN?

#### *Jakoba Errekondo. Bizi Baratzea (16-19. or.)*

**Baratzeak maiz azaltzea eskatzen du.**

**Lanak behar bezala burutzeko, hau da, garaian garaikoa garaiz egin ahal izateko, garrantzitsua da erraztasuna. Narraskerian eta lardaskan ez ibiltzeko, aukeratu aise bertaratzeko moduko toki bat.**

Toki bakoitza bakarra da. Ez dago horrelako beste bat. Baratze bakoitzak bere mikroklima izango du. Baratzea non egin aukeratzeko, gogoan hartu hiru gauza: lurra, ura eta argia. Ahal den eta lur onena duen tokia aukeratu: erriberak, lur sakonak eta harroak, eguterak... Noizbait baratzea izandako sailak, adibidez, lan erdia emango digu. Ahaztu lurra ez beste gaiekin egindako betelanak (eraikuntza- edo harrobi-hondakin, zabor...) eta buztin-lur itoak, edo prestatu lana latz egiteko.

Argia behar-beharrezkoa dute landareek bizi ahal izateko. Etxe barruan bizi diren landareek ederki erakusten digute: begira nora okertzen diren, argi bila beti. Zenbat eta eguzki gehiago, orduan eta barazki hobeak. Eguzki-begia aukeratu, hegoaldera begirako isuri handirik gabeko lur-saila, onena. Gutxienez sei ordu eguzki behar direla esan ohi da. Kontuz inguruko zuhaitzekin eta basoekin: iparraldean bale, baina beste aldeetakoren batean egonez gero, goizean ez bada arratsaldean itzalpean hartuko dute baratzea.

Barazki guztiek ez dute argi-premia bera; batzuk erdi itzaletan ere ederki hazten dira. Aho-sabaiak ere erakutsiko digu: erdi itzaletan hazitako barazki batzuk, samurragoak, bigunagoak, finagoak, mamitsuagoak, gozoagoak izango dira. Geurea bezala, haien azala erre

eta zakartzen du eguzkiak. Beste batzuk, aldiz, eguzki betean alde ederreko usaina eta zaporea hartuko dute. Landareak zimel-zimel eginda ikusi nahi ez baditugu, ez ditugu egarriak eduki behar. Hazitegiak eta landare aldatu berriak, itsatsi artean, ureztatu beharko dira. Sasoi bero eta lehorretan baita baratze osoa ere. Ura, halaber, lanabesak eta barazkiak garbitzeko beharko dugu Iturriko urik ez badago, zer edo zer asmatu beharko da premiazko beharrak aseko dituen euri-ura bildu eta jasotzeko.

**Haizea** ere aditu beharko dugu. Beti ona da haize nagusien aldetik babesen bat eraikitzea (...)

Baratzean geuk jango duguna landuko dugu; kontuan izan, zenbat erein edo aldatu erabakitzean. Landare asko batera jartzea baino, hobe landaketak tartekatzea. Tamainako lana eta tamainako uzta, eta, ahal bada, etengabekoa. Baratzeak, baita, berarekin dakar uzta-soberakinak jasotzeko teknikak ikastea ere: marmeladak, ozpinetakoak, ontziratzea, kontserbatzea... Gaitu zaitetz. Urtea luzea da, eta zenbaitek sasoiko uztak urte osorako egiten ditu.

### LURRA ETA BERE HIRU EMEAK

**Lurra m** hizkiz idatzi beharko genuke. Ez bat eta ez bi, funtseko hiru **m**-k osatzen baitute lurra: **mineralak**, **materia organikoak** eta **mikroorganismoek**. Hiru horien elkarlanak lurrari bizirik eusten dio, eta hori da baratze osasuntsu eta oparo baten oinarria. Zenbat eta biziago lurra, orduan eta uzta aberatsagoa. Horrexegatik, besterik ez bada, ez genuke inoiz pozoirik erabili behar. Pozoiek gure barazkien arerioak hiltzen dituzte, baina baita lagunak ere.

**Mineralak** dira lurraren osagarri nagusiak. Lurpe sakonean dauden harkaitzetatik edo sail horretara kanpotik (uholdeek, jendeak ...) ekarritako harrietatik askatzen dira. Mineral-ongarriak emanez, lurra mineral jakin batzuetan aberasten da.

**Materia organikoa** da lurraren motorra, lurraren biziaren motorra. Usteltzen ari den edozein bizidunen hondarra da materia organikoa: simaurra, luarra, orbela, inaurkina ... Ongarri organikoak piztu egiten du lurra. Usteltzea mikroorganismoek eragiten dute. Organiko asko badago, hobia izango da lurraren egitura eta oparago biziko dira mikroorganismoak. Horien lanak ongari mineralak askatzea dakar, bai organikotik bertatik, baita lurretik ere. Lurra piztu eta mineralez aberaste horrek baratzea biziberritzea dakar, eta alde ederrean etorriko dira gure landareak!

Birziklatze-faktoria erraldoi bat da lurra. Bertan milioika eta milioika bizidunek lan egiten dute. Handi eta txiki, azken horiek dira gehiengoak: **mikroorganismoak**. Denetik dago: armiarma, zizare, nematodo, alga, onddo, bakterio ... Etenik gabe lan egiten dute, bakoitzak bere barrutian; batzuek azalean, besteek lur sakonetan. Haiei eskerrak, ustelduko da materia organikoa eta eutsi ahal izango zaio luraren egiturari. Lan horren ondorioz, lurra bizirik egongo da, etengabe gal-galean, bor-bor. Horrek landareen bizimodua erraztu eta bizitza kalitatea hobetu egingo du.

Mikroorganismo bizidun txikiek beren lana ongi eta lurra bizi-bizi egoteko, airea behar da. Uzta kaskarra emango du lur itoak, urez aseak, ongi aireztatu gabekoak. Lurpeko bizitza apaldu egingo da, lurra bera pobretu, sustraien lana zaildu, eta landareak bizi baino iraun egingo du ...

(...)

#### 1- Non jarri baratzea?

- A. Berdin dio non.
- B. Aise lardaskatzeko moduko lekuan.
- C. Ganorazkoa izango bada, gertu.

#### 2- Tokiak berebiziko garrantzia izango du baratzea egiteko, \_\_\_\_\_ .

- A. eguzkiak ondo jotzen duen tokiak onak izango dira
- B. noizbait baratzea izandako lur-sailak ez dira oso egokiak
- C. eraikuntza hondakinak oso onak izan daitezke gure baratzerako

#### 3- Argizaleak dira landareak, horrenbestez, \_\_\_\_\_ .

- A. leku eguzki-begian jarri zure ortua
- B. egin ezazu baratzea zuhaitz artean edo basoaren iparraldean, argiari probetxua atera nahi badiozu
- C. arratsaldean ez bada, goizean harrapatuko du itzalak zure baratzea

#### 4-Landare guztiek ez dituzte premia berak \_\_\_\_\_ .

- A. batzuek ez dute hainbesteko argitasunik behar
- B. baina hori bai, baratzeke landareak etengabe ureztatzeke eskatzen ibiliko dira
- C. azala zakartutako landareak dira usain eta

zapore handiena hartuko duten landareak

#### 5- Baratzean geuk jango duguna landuko dugu \_\_\_\_\_ .

- A. baratzean uzta jasotzeko teknikak ere ikasi behar dira
- B. zenbat eta lan gehiago egin, orduan eta uzta oparoagoa izango dugu
- C. landare asko batera jarriz gero, uzta tartekatu egingo zaizu.

#### 6- Funtsezko hiru m-k osatzen dute lurra, \_\_\_\_\_ .

- A. hirurak batera, baratzearen euskarri
- B. uzta aberatsa nahi badugu, barazkien arerioak pozoitu behar ditugu
- C. pozoiek barazkien arerioak hiltzen dituzte baina baita mineralak ere

#### 7- Materia organikoa luraren motorra da, \_\_\_\_\_ .

- A. Baratzea biziberritu egingo da, materia organikoak zer usteldu baldin badu
- B. Baratze biziberrituan ederki haziko da landarea
- C. Ongarri organikoek mikroorganismoak usteltzen laguntzen dute



## Ilargiaren eragina

→ **Testu honetako hutsuneak betetzeko zutabeen dauden hitzak erabili behar dituzu.**

→ **Aukeran ematen diren hitzen artean hiru sobera daude.**

Grina	Duenerako	Ilargiaren
Goiko	Goranzko	Ilargia
Gorabehera	Ezina	Duenak

### ILARGIAREN ERAGINA

*Jakoba Errekondo. Bizi Baratzea.*

Ilargiak etengabeko eragina du landareengan. Gorantz doala, beherantz datorrela, berritzen ari dela, zahartzen <sup>(1)</sup> \_\_\_\_\_ ugari du ilargiaren mugimendu amaigabeak. Hala ere, ilargiarengandik ez mirakulurik espero, garrantzitsuena lanak ongi egitea da: landarea hautatu, garaiz erein, ureztatu, ongi zaindu...

Bi gauza argitzeko:


1- **Ilargiak eragiten duen energia** <sup>(2)</sup> \_\_\_\_\_ beraren masa osoak sortzen du. Ez dauka inolako loturarik guk egunetik egunera hazten edo txikitzen ikusten dugunarekin. Horrek eguzkia-lurra-ilargia hirukiaren egoerarekin du lotura, besterik ez; eguzkia non dagoen, ilargia nola argitzen duen eta lurra non dagoen, guk ikusten duguna da. Aldiz, ilargia, ilargi osoa, guk ikusi edo ez, gorantz eta beherantz ari da etengabe.

<sup>(3)</sup> \_\_\_\_\_ gora badoa, landarearen izerdiak <sup>(4)</sup> \_\_\_\_\_ joera errazago hartuko du. Horrek landarearen garapena sustatuko du. Baratzeke landareetan, loratzea dakar, eta fruituak eta haziak ematea. Ilargia behera badoa, landareak garatzea zailago izango du, eta izerdia eta energia sustraletan, zuztarrean, hostoetan eta erreserbetan eusteko <sup>(5)</sup> \_\_\_\_\_ izango du.

2- **Izenak.** Eta hizkuntza. Euskaraz ilargiaren mugimenduak izendatzeko ditugun hitzak nahastuta dauzkagu, nire ustez, erdaren eraginez. Frantsesezko *lune croissante* edo gaztelaniazko *luna creciente* euskaldun gehienok "ilberria" esaten dugu. Aldiz, "ilzaharra" eta "ilondoa", nahiz eta zenbait tokitan oraindik erabili, ia erabat galduta ditugun hitzak dira, eta frantsesezko *lune décroissante* eta gaztelaniazko *luna decreciente* esateko "ilbehera" erabiltzen dugu. Handitzen edo argiz hazten ikusten dugunean "ilberria" esaten dugun bezala, txikitzen edo argiz murrizten

ikusten dugunean "ilzaharra" erabili beharko genukeela iruditzen zait.

"Ilgora" eta "ilbehera" izenak, horixe, gora eta behera egiten <sup>(6)</sup> \_\_\_\_\_ jasotzea da egokiena. Honela erabiliko dugu hemen.



## Ilargiaren izenak

Hortaz, ilargiaren mugimendu horiek izendatzeko, euskaraz lau izen desberdin ditugu, zer adierazi nahi dugun.

Baserritarrak goraka edo beheraka egiten duen mugimenduari egoten dira adi bereziki; izan ere mugimendu horrek eragina izaten du landareengan, eta naturan, oro har.

→ **Lotu hitza eta definizioa:**

1. <b>Ilgora</b>	a) Ilargia ikusten ez den unetik hasi, eta egunetik egunera ilargia handiagoa ikusten dugun tartea. Ilargi beretik ilargi beterako tartea.
2. <b>Ilbehera</b>	b) Egunetik egunera ilargiaren orbita gero eta hurbilago dago.

3. Iberria	c) Ilargi betea ikusten dugun unetik hasi, eta egunetik egunera ilargia txikiagoa ikusten dugun tartea. Ilargi betetik ilargi berrirako tartea.
4. Ilzaharra	d) Egunetik egunera ilargiaren orbita gero eta urrunago dago.

agendan jasota izango baitugu ...

Ikusi bideo hau eta erabaki esaldi hauek EGIA ala GEZURRA diren.

- A. “Baratze bat egin nahi deizüt” kantak hain du arrakasta handia jende artean, non, jadanik, inork ez dakien nork idatzi zuen
- B. Denok dugu baratze baten beharra, ideala badarik ere, gurea izango dena eta besteen iritziaz arduratu gabe
- C. Gizartea gogaituta dago nekazaritza-industriarekin, horrenbestez beste janari mota batzuk ari dira kontsumitzen.
- D. Gutako gehienok jatorria dugu nekazal munduan; alegia, oso loturik gaude baserrira.
- E. Hiritar zein baserritar, denok egin behar dugu baratze, eta gure barazkiak produzitu.
- F. Mundu osoan zehar ari da hedatzen laborari txikiei, hirietako merkatuetan erosteko joera.
- G. Nahiz eta laborari-munduarekin zerikusirik eduki ez, gure eguneroko hiztegian handik harturiko hitz asko ditugu: alor, jorratu ...
- H. Paleolitikoan, bizitza nomada atzean utzi eta etxeak egiten ari ziren garaian baratzeak ere egiten hasi ziren.
- I. Paleolitikotik hona, nomadek baratzeak landatu izan dituzte beren borden ondoan.

### Liburu baten aurkezpena, Donostian.

*Landareak Lantzen Gidaliburua. (Argia multimedia)*



**Errekondoren *Landareak Lantzen* liburuaren aurkezpena Donostian burutu zen; Bretxako merkatuaren atarian, hain zuzen.**

**Hemen duzu, sarrera gisa, liburuaren bigarren argitaraldiaren kariatara *Argian* ateratako artikulua.**

**Landareak Lantzen, bigarren argitaraldia.**

[argia.eus/blogak/argia/2017/11/30/landareak-lantzen-bigarren-argitaraldia/](http://argia.eus/blogak/argia/2017/11/30/landareak-lantzen-bigarren-argitaraldia/)

Sekula ez al zaizu pasatu, irakurle baratzezain, urte batean ilarrak mundial atera, hurrengo urtean zein egun eta ilargialditan erein zenuen gogoratu nahi, eta ezin? Orain badu konponbidea horrek! Jakoba Errekondoren eta Antton Olariagaren eskutik heldu zaigu nobedadea: baratzeke agenda. Badator urte berria, eta 2018ko lehen egunetik agenda hau martxan edukitzeko, abendua garai aproposa dugu berau eskuratzeko. Eta liburu-dendan zenbat aukera! Zer berezitasun du agenda honek? Gure egunerokotasuneko lan eta oharrak baino, gure baratze eta lorategien eguneroko lan eta oharrak apuntatzeko balio digu *Landareak Lantzen* baratzeke agendak. Agenda praktikoa bat da. Zer, noiz eta nola egiten den azaltzeko gomendioak emango dizkigu, ilargiaren gorabeherak eta posizioak eskainiko dizkigu, eta nork bere lanak apuntatu ahal izango ditu. Aurrera begira, baliagarri izango zaigu informazio hori guztia, datorren urtean oroitu nahi badugu zer, zer garaitan, zer ilargialditan edo nolako eguraldia zenean egin genuen,

## Hiztegi- eta gramatika- kontuak.

**Ikusi berri dugun bideoan Itxaro Borda idazle baxenabartarra aritu zaigu *Landareak Lantzen* gidaliburuaren aurkezpenean. Argi eta poliki mintzatu den arren, ezagun du Iparraldekoa dela.**

→ **Errepara iezaiezu zenbakia duten hitzoi eta bila iezaiezu ordaina.**

1. IHIZTARIAK	AHAZTU
2. TXATXOLAK	ASKI
3. ERRANAK	BUKATU
4. LABORANTZ A	EHIZTARIAK
5. BARNA	ESANAK
6. ALORRA	ETXOLAK
7. JORRATU	GONBIDATU
8. FINITU	JOAN DEN ...
9. SOBERA	LUR-SAIL
10. AHANTZI	NEKAZARITZA
11. IRAGAN ...	SARATU
12. GOMITATZEN	ZEHAR
	LANDU
	EREMU

## Ebazpenak

### Hasten hasteko

1-A /2-A/3-C/4-B/5-A/6-B/7-C/8-A

### Oinarriak: lurra, ura eta argia

1-C/2-A/3-A/4-A/5-B/6-A/7-B

### Ilargiaren eragina

GORABEHERA  
ILARGIAREN  
ILARGIA  
GORANZKO  
GRINA  
DUENERAKO

### Ilargiaren izenak

**Igora** Egunetik egunera ilargiaren orbita gero eta urrunago dago.

**Ilbehera** Egunetik egunera ilargiaren orbita gero eta hurbilago dago.

**Ilberria** Ilargia ikusten ez den unetik hasi eta egunetik egunera ilargia handiagoa ikusten dugun tartea. Ilargi berritik beterako tartea.

**Ilzaharra** Ilargi betea ikusten dugun unetik hasi eta egunetik egunera ilargia txikiagoa ikusten dugun tartea. Ilargi betetik berrirako tartea

### Liburu baten aurkezpena, Donostian.

GEZURRA/EGIA/GEZURRA/GEZURRA/GEZURRA/EGIA/G  
EZURRA/EGIA/GEZURRA

### Hiztegi- eta gramatika- kontuak.

1-EHIZTARIAK/2-ETXOLAK/3-ESANAK/  
4-NEKAZARITZA/5-ZEHAR/6-LUR-SAIL/7-SARATU/  
8-BUKATU/9-ASKI/10-AHAZTU/11-JOAN DEN/  
12-GONBIDATU

